



Arartekoaren 2020IR-2151-19 Ebazpena, 2020ko abenduaren 2koa. Horren bidez, amaitutzat jo da Anoetako Udalean hautespen-prozesuari lotutako kexa batean egindako jarduna.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekoarengana jo zuen Anoetako Udalaren jarduerari buruzko iritzia nahi baitzuen. Anoetako alkateak landa eta natur inguruneke teknikariaren lanpostua betetzeko deialdia 2019ko urtarrilaren 25eko dekretuaren bitartez egin ostean, aipatutako udalaren hautespen-prozesuan parte hartu zuen.

Deialdiaren oinarriekin bat etorriz, prozesuan parte hartu nahi zuten pertsonen lanbide heziketako erdi edo goi mailako ikasketak izan behar zituzten nekazaritza arloan.

Kexagileak titulu hau zuen: "Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ustiategiak espezialitatea". Titulu hori aho batez onartu zuten kalifikazio-epaimahaikideek prozesuan partaidetza justifikatzeko egokia zelakoan; izan ere, uste zuten nekazaritza arloko goi mailako titulu batek maila beheagoko titulu batek emandako prestakuntza hartzen duela eta, beraz, horren parekoa izan zitekeela betekizunaren ondorioetarako.

Hala, pertsona horrek parte hartu ahal izan zuen, onartuen zerrendan agertu zen, aurreikusitako probak egin zituen eta bere titulua merezimendu gisa baloratu zuten. Horren guztiaren ondorioz, hautespen-prozesuan puntu gehienak lortu zituen, kalifikazio-epaimahaiak onetsitako behin betiko emaitzetan islatutakoari jarraiki.

Dena den, azkeneko egintza hori argitaratu ondoren, prozesutik baztertu zuten, Anoetako alkatearen 2019ko ekainaren 25eko dekretuaren babesean. Nolanahi ere, parte hartzeko oinarri modura aurkeztutako titulu akademikoa gerora ez zen onartu eta, horrenbestez, pertsonak oinarrietan eskatutako baldintza ez zuela egiaztatu ondorioztatu zen.

Erabaki hori hartzeko funtsa dokumentazioa aurkezteari buruzko deialdiaren 10. idatz-zatia eta 39/2015 Legeko¹ 47.1 eta 106. artikulua izan ziren. Bigarren lege honek administrazio-egintzak erabat deuseztatzeko ustezkoak eta administrazio publikoei ofizioz halako kasuetan egoera aitortzea ahalbidetzen dien prozedura arautzen ditu.

2019ko uztailaren 10ean kexagileak dekretuaren aurka berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu zuen. Horren bidez, besteak beste, honako hauek alegatu zituen: konfiantza legitimo eta fede onaren printzipioak urratzen zirela eta

¹ Urriaren 1eko 39/2015 Legea, *Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena*.

deitutako lanpostuko berriazko funtzioak betetzeko titulua egokia zela. Horrez gain, hautespen-prozesuetan eska daitezkeen tituluei buruzko hainbat jurisprudentzia erantsi zuen. Ildo horri eutsiz, bere ustez, aplikatuz gero, deialdian bere eskaera onestea bermatuta geldituko litzateke.

Ondoren, urrian, bere errekursoaren berezko ebazpenik ez zegoenez, Arartekoarengana jo zuen. Kexa formulatu zuen eta gaian esku hartzeko eskatzen zion erakundeari.

2. 2019ko azaroaren 20an erakunde honek idazki bat bidali zion Anoetako Udalari. Nolanahi ere, kexan aurkeztutako dokumentazioa ikusirik, zenbait gogoeta ezin zizkion eta, aldi berean, gehienez 15 eguneko epean Arartekoari deialdiaren eta bere kudeaketaren inguruko zenbait alderditan informazio zehatza helarazteko eskatzen zion. Zehazki, honako hauek ziren:

- *Kexagileak aurkeztutako berraztertze errekurtsoan adierazitako gogoetei zer-nolako tratamendu arrazoitua eman zaien edo emango zaien.*
- *Lanpostuaren ezaugarriak, titulazio-talde bati atxikitzeari dagokionez, eta noiz eta nola zehaztu ziren.*
- *Hautapen-prozesuan sartzeko baldintza gisa lanbide heziketako erdi-mailako eta goi-mailako tituluak ezartzea justifikatu zuten arrazoiak, kontuan hartuta herri administrazioetako lanpostuen egituraren barruan titulu horiek talde berezietan daudela.*
- *Ezagutza arlo berean sar daitezkeen beste titulu batzuk baztertzea justifikatu zuten arrazoiak.*
- *Kalifikazio-epaimahaiak onartutako egintzak deusezak direla adierazteko jarraitutako prozedura eta, bereziki, gainditutako pertsonen zerrenda eta horren ondoriozko esleipen-proposamena.*

2019ko abenduaren 13an udalak idazkia bidali zuen. Adierazitakoaren arabera, administrazio horretan langile nahikorik ez zegoenez, gai batzuk izapidetzeko orduan atzeratu ziren eta bertan sartuta zegoen kexa-espeditetari erantzutea.

Berririk gabe denbora aurrera zihoan eta, beraz, erakunde honek berriazko errekerimendua egin zuen 2020ko urtarrilaren 15ean. Hala, bost egun geroago, Arartekoak hautespen-prozesuko zenbait dokumenturen kopia jaso zituen. Gehienak ezagutzen zituen eta, orokorrean, horiekin planteatutako gaiei ezin zitzaion erantzun.

Horregatik, 2020ko otsailaren 6an udalari eskaera berri bat bidali zitzaion, halako gogoetak jakinarazi eta berriz ere azaldutako alderdiei buruzko informazioa eskatzeko.

Tokiko administrazioaren esanetan, emandako epean ezin zuen erantzun. Horrez gain, osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz sortutako inguruabar berezia kontuan hartuta, erakunde honek arrazoizko epe itxaron zuen erantzuna, baina 2020ko ekainaren 1ean errekerimendu berria egitea beharrezkotzat jo zuen.

Azkenean, 2020ko uztailaren 16an erakunde honetan txostena sartu zen eta, laburbilduz, hala zioen:

- ✓ 2019ko hautespen-prozesuak aldi batean gauzatzeko programa garatu nahi zuen. Gutxi gorabehera hiru urte iraun behar zituen eta zereginak honako hauek ziren:
 - Landa-eremuaren erradiografia egitea.
 - Landa-lurren kudeaketa ezagutzea.
 - Landa-eremuan ekoizten diren produktuak ezagutzea eta horien kontsumoa sustatzea.
 - Abeltzaintzako, nekazaritzako eta basogintzako produktuak merkaturatu daitezela sustatzea.
 - Etorkizunerako erronkak.

Helburua ez zen zientzia-azterlanak egitea, ezta proiektu teknikoak gauzatzeko ere, Anoetako landa-mundua eta natur sistema, baita bere pertsonak ere ebaluatu eta ezagutzea baizik. Gainera, udaleko eta eskualdeko nekazaritza-erakundeetako programak betetzen ziren ebaluatu nahi zen, epe laburrera egiteko jarduerak proposatzearekin batera. Horrek guztiak beste erakunde batzuekin elkarlanean egitea zuen xede.

- ✓ Programa egikartzeko pertsonen lanbide-tituluak aztertu ziren eta nekazaritzaren arloan lanbide heziketako ikasketa batzuei erreparatu zitzaizkien, zehatz-mehatz esanda, honako hauei:
 - Basogintza eta Natur Ingurunea Kudeatzeko goi-mailako teknikaria.
 - Paisaia eta Natur Ingurune goi-mailako teknikaria.

Aztertze lanbide-curriculum eta titulu horien lanbide-irteerei buruz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako informazioa kontuan hartu ziren. Beraz, lan hori abiapuntutzat hartuta, programarako titulu egokiak horiek zirela ondorioztatu zen.

Badaezpada, goi-mailako tituluarekin hautagairik ez bazen aurkezten, maila ertaineko edo goi-mailako lanbide heziketako titulua zuten pertsonak onestea planteatu zen.

- ✓ Programari esleitutako ordainsari-mailak (Udalhitzen 10a) eskatutako tituluekin harremana du, unibertsitate-titulua eskatuz gero, goragokoa izango bailitzateke.
- ✓ Kexagileak berraztertze errekurtsuan aurkeztutako dokumentuarekin bat, nekazaritza-ingeniaritza teknikoaren tituluak, lanpostua lortzeko berak aurkeztutakoak, beste lanbide-zeregin batzuk ditu:
 - Ondasun higiezinak eraiki, berritu edo ustiatzeko proiektuak idatzi eta sinatzea.
 - Nekazaritza ustiatzeak edo lursailak neurtu, kalkulatu eta baloratzea.
 - Eta hautespen-prozesuaren xedeko lanekin zerikusirik ez zuten bestelakoak.

- ✓ Deialdiaren oinarriak ez ziren auzian jarri eta ez zen errekurtsorik edo erreklamaziorik egon.
- ✓ Pertsonak onartzeko erabakia baliogabetzeari dagokionez, izapide-egintza da; ez, ordea, behin betikoa, eta, gainera, prozesuan organo jarduleek edozein unetan hautagaiak lanpostua betetze aldera eskatutako baldintzak (besteak beste, lanpostua lortzeko titulua izatea) betetzen dituzten aztertze betebeharrak eta eskubidea dute.

Ildo horri jarraiki, Auzitegi Goreneko epaiaren zati bat transkribatzen da. Horren arabera, hautespen-prozesuan pertsonak onestea, baita lanpostu baterako izendatzea ere, ez dira datu nahikoak berezko egintzen doktrina eta fede onaren printzipioa aplikatzeko, administrazioaren akatsak edo legez kanpoko jarduerak ezin baitituzte hirugarren pertsonak kaltetuta utzi eta beren interesa errekurtsuaren bidetik baliaraz dezakete.

- ✓ Gogoeta juridiko horiek kexagilearen berraztertze errekurtsuaren ebazpena arrazoitzeko erabili ziren.

Gogoetak

1. Arartekoa jakitun da, sarritan, administrazio publikoek zailtasunak dituztela ohiko lanak kudeatzeko, bai jarduera-arlo desberdinetan gaiak metatzen direlako, bai lan hori arduraldi maila handiagoarekin gauzatze aldera bitarteko guztiak ez dituztelako, bai, kasu honetan bezala, ohiz kanpoko inguruabarrek, administrazioarekin zerikusirik ez dutenek, eragiten dutelako. Izan ere, osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz, administrazio-bizia nabarmenki eten zen.

Hala eta guztiz ere, Anoetako Udalak espediente hau izapidetu eta kexagileak jarritako berraztertzeo errekurtsua ebazteko erabili dituen epeei buruz, Arartekoaren zeregina herritarren eskubideak defendatzea denez, ebazpen honek ezin ditzake zenbait gogoeta aipatu gabe utzi.

Aurrekoaren harira, batetik, espediente hau izapidetzeko orduan, erakunde honek tokiko administrazio horri bi informazio-eskaera egin ostean, bakarrik bakoitzeko errekerimendu bana bidalitakoan erantzun dira eta, gainera, epeak aurki gaindituta zeudenean.

Halaber, azpimarragarria da informazioa hasieran eskatu zenetik (2019ko azaroaren 20a) gaiaren inguruan txosten bakarra jaso arte (2020ko uztailaren 16a) denboraldi luzea igaro dela, deialdia argitaratu (2019ko urtarrilaren 25a) eta azken ebazpena egitearen (2019ko ekainaren 25a) artekoarekin alderatuz gero.

Ilido beretik, erakunde honek ezin dezake uler 3/1985 Legeko² 23. artikuluan xedatutakoa zintzotasunez bete denik. Horrek ondorengo hau ezartzen du: *“9.1 Atalean esandako Erakundeetako Ihardutze-sailak, eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz ematea behartuta daude.”*

Bestetik, udalak bidalitako txostenaren edukitik ondoriozta daiteke administrazioak kexagileari jarritako berraztertzeo errekurtsuaren inguruan berariazko ebazpena jakinarazteko borondatea zuela. Ez da jakina azkenean modu horretan egin den, baina, nolana ere, jarduerak ez lituzke araudiak aurrez ikusitako epeak beteko.

Hain zuzen, 39/2015 Legeak ezartzen du administrazio publikoek nahitaez ebatzi behar dituztela aztertu beharreko gaiak, baita ebazteko epeak ere.

Modu horretan, 21.1 artikuluan, orokorrean, hurrengo hau xedatzen da: *“Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua”*; bien

Otsailaren 27ko 3/1985 Legea, Ararteko erakundea sortu eta arautzeari buruzkoa.



bitartean, 124. artikuluko 2. idatz-zatiak xedatutakoaren arabera, berraztertzeko errekursoaren kasuan, *“Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete izango da.”*

Arau horren 24. artikuluan xedatuta dago interesatuek eskatuta hasitako prozeduretako administrazio isiltasuna nolakoa izango den eta adierazten da horrek ez duela esan nahi baztertu egin behar denik administrazioak edonola ere eman beharreko ebazpena.

Arartekoak askotan azpimarratu izan du administrazio publikoen jardueran batzuetan izaten diren praktikek herritarrengan ondorio larriak sortzen dituztela, besteak beste, administrazio prozedurak izapidetzean justifikaziorik gabe sortutako atzerapenak edo isiltasuna erabiltzea interesatuek aurkeztutako eskarietan eta baliabideetan.

Jarduera horiek, nabarmenki kaltetzen dute herritarren egoera juridikoa, agerikoak diren oztopoak sortuz, eta interesatuak desabantaila egoeran ezarriz eztabaidatzen ari diren gaiaren inguruan dituzten nahiak bermekin proposatzeko, bai alderdi materialei, denborazkoei eta prozedurazkoei dagokienez.

Hala, lehenik eta behin, jarduera horiekin, interesatuek ezin dute modu argian eta zehaztasunez eta berariaz jakin zein den administrazioak beraien iritzia eta argudioen inguruan duen asmoa, ezta zein den administrazioak eskatutakoa ez betetzeko aplikatutako oinarria, edo, zein den beraien nahia indargabetzen saiatzeko prozedura judizialean erabili beharreko oinarria.

Baina, horrez gain, administrazioen isiltasun-egoeragatik kaltetutako pertsonak, ez dakite zeintzuk diren administrazioak beraien nahiaren aurkakoa den erabakia errekurritzeko jakinarazi beharreko oinarrizko elementuak, besteak beste, dagozkion errekurtsuak, horiek aurkeztu beharreko administrazio organoa edo organo judiziala eta errekurtsuak jartzeko epeak.

Ondorioz, benetako defentsa-gabeziaren egoera sortu daiteke interesatuentzat, eta, edonola ere, ordenamendu juridikoak hori legez kanpokotzat jo behar du.

Horiek guztiak kontuan hartuta, Arartekoak berez azpimarratu nahi du Anoetako Udalak, gainerako administrazio publikoek bezala, bere jarduerak gauzatu behar dituela eta, bide batez, herritarrek planteatutako eskaerak eta errekurtsuak ebatzi behar dituela eta, gainera, hori araudiak ezarritako epeen barruan ahalik eta arinen egin behar duela, batik bat, kexan aztertutako kasuaren moduan, denbora igarotzea axolagabea ez denean. Halakoetan, gerta litezkeen egoeren ondorioak finkatzen dira eta, ondorioz, edozein balizko berrikuspen zailduta dago.



2. Erakunde honek espedientea izapidetu duen bitartean landu dituelako, ebazpenaren atal honetan kexaren xede izan ziren deialdiko elementu zehatzak aztertuko dira, baina kanpoan utziko dira hautespen-prozesuaren konfigurazioari buruzko bestelako gaiak.

Lehenengoz, Anoetako Udalak jakinarazitakoaren arabera, deialdiko oinarriak ez ziren auzian jarri eta ez zen errekurtsorik edo erreklamaziorik egon, beraz, partaideentzat irmo eta ados bihurtu ziren.

Hala eta guztiz ere, kontrataziotik ondoriozta daitezkeen ondoreak onartu arren, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du hurrengo gogoetak idatziz jasoak uztea, planteatutako gaiak aztertu ondoren.

Hasteko, beren jarduera garatu eta emanda duten helburu publikoa lortze aldera bitarteko materialei eta giza baliabideei dagokienez, administrazio publikoek dituzten antolaketa-ahalmen zabalak onartu behar dira.

Dena den, nahiz eta ahalmen horiek onartu, nolana ere, administrazioek ordenamendu juridikoak xedatutakoari erantzun behar diote eta alde zuzenetik objektibotasunez eta modu egokian justifikatuko dituzte euren erabakiak. Xede horrez, behar bezalako jarduerak gauzatu dituzte eta prozeduraren administrazio-espeditentean islatuko dira.

Erakunde honi hautespen-prozesuko administrazio-espeditentea osatzen duten dokumentuak bidali zaizkio eta kronologikoki deialdian bertan hasten dira, beraz, ez da jakina definitzeko funtsezko elementuei buruzko txostenik gauzatu zen. Une hartan egindako balorazioaren berririk ere ez dago.

Gure aurreko eskaerak gorabehera hori aipatzen zuen eta argi utzi zen bidalitako dokumentazioan lanpostuaren ezaugarrien eta titulazio-talde bati atxikitzearen arteko erlazioari aipamenik ez zitzaiola egiten. Horrenbestez, halako erabakia hartzeko egindako analisisa, justifikatzeko oinarriak eta erabakiaren unea ezin ziren ezagutu.

Halaber, lanpostua lortzeko baldintza gisa lanbide heziketako titulu zehatzak eskatzen ziren, baina eskakizuna definitzeko arrazoirik ez zen adierazten. Zergatik sartzen ziren titulazio-talde desberdinetan ere azaldu gabe zegoen. Azkenik, beste titulu batzuk baztertua justifikatu zuten arrazoi objektiboak ezezagunak ziren, ezagutza-arlo berdinean kokatu ahal izan arren.

Erantzunaren txostenak horri guztiari buruz zenbait gogoeta jakinarazi zituen. Hala ere, bere egunean sortu zen bestelako dokumentaziorik ez zuen gehitu, hortaz, ondoriozta daiteke berariazko txostenetan ez zeudela eta orduan jardundakoaren inguruan azalpen modura gerora idatzi zirela.

Txostenak programa garatzeko pertsona hautatuak egin behar dituen zeregin nagusiak zerrendatzen ditu. Dena den, kontuan hartu behar da deialdiaren oinarriek aipatu ez diren beste arlo batzuk hartzen dituztela (adibidez, sentsibilizazioa). Ondoren, hala dio: *“Programa hori gauza zezaketen pertsonen titulu profesionalak aztertu ondoren, nekazaritza arloko lanbide heziketako ikasketak aztertu ziren.”*

Esaldi horren lehenengo koma-artearen esanahi zehatza ezezaguna da. Dena den, gero, dokumentuak aipatutakoari jarraiki, azterketa lanbide heziketako familia horretan goi-mailako bi titulutan lanbide-irteerak alderatzera mugatu zen. Alderaketaren ostean ondorioztatu zen familiako titulu guztiak lanpostua betetzeko egokiak zirela. Gainera, maila ertainekoak ere onetsi ziren, goi-mailako titulua zuen inor ez bazen aurkezten aukera izateko. Bestalde, Udaltzaren 10. ordainsari-maila eskatutako titulu akademikoari erreparatuz atxiki zen.

Administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileen arloan araudi aplikagarriak administrazio horretan egin behar diren funtzioak hainbat taldetan egituratzen ditu eta, aldi berean, horiek lanpostuetara iristeko eskatzen diren tituluen arabera definitzen dira. Modu horretan, maila ertaineko lanbide heziketaren titulua dutenak talde edo eskala batean kokatzen dira; bien bitartean, goi-maila dutenak beste talde ala eskala batean daude.³

Bereizketa egiteko talde bakoitzeko lanpostuetan garatu behar diren funtzioak eta zereginak kontuan hartzen dira, beraz, lanpostuaren definizioak berak alde aurretik atxikiko zaizkion zereginak aztertzeko eskatzen du, gerora zer titulu-taldetan sartu behar den zehazteko eta, laburbilduz, definituko duten ezaugarriak ezartzeko.

Halaber, aurretiaz zereginak eta bestelako faktore aipagarriak (erantzukizuna, arduraldia, kargura izango diren langileak...) aztertzearen lanean funtsatu behar da lanpostuari ordainsari zehatza esleitzea. Beraz, lanpostuak lortzeko baldintza gisa eskatzen diren tituluak ez dira adiera bakarra, bereziki, kasu honetan bezala, tituluak ezaugarri ezberdinak dituztenean.

Erakunde honek lortu duen dokumentazioari eutsiz, lanpostua titulu-talde zehatzean kokatze aldera, deialdi honetan ez zen funtzioak aztertu eta sailkatzeko prozesu hori gauzatu. Besterik gabe, *“Programa hori gauza zezaketen pertsonen titulu profesionalak aztertu ondoren”*, goi-mailako lanbide heziketako bi tituluren lanbide-irteerak aztertzea aukeratu zen.

³Honako arau hauek aldera daitezke:

- Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 169 artikulua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.
- Uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren, 43. artikulua.
- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 76. artikulua eta hirugarren xedapen iragankorra, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Espedientean ez da islatu analisiaren ondoriozko balorazio arrazoitua, alderatutako datuen bateragarritasun edo bateraezintasunari dagokionez. Era berean, tituluaren berezko elementuren bati, hala nola lanbide-gaitasunei ala lanbide-prestakuntzei, erreparatu zitzaizen ere ez da ageri. Nolanahi ere, erakunde honen iritziz, horiek dira aipagarriak, lanpostuaren berariazko funtzioak eta zereginak betetzeari begira, titulu zehatz batek zertara gaitzen duen zehazteko orduan.

Txostenak ere ez du baloraziorik. Izan ere, lanpostuko zereginak eta bi titulu horien lanbide-irteerak deskribatzera mugatzen da. Horren gain, ondorengo hau baieztatzen du: *“Azken batean, garatu beharreko programarako egokiak diren tituluak.”*

Bestalde, esanguratsua da analisiak bakarrik bi titulu aintzat hartzea eta deialdiaren oinarriek, ordea, nekazaritzaren arloko edozein titulurekin aurkezten uztea, arlo horrek goi mailako hiru titulu eta maila ertaineko bost titulu dituenean.

Aukera zegoen goi-mailako titulua zuen hautagairik ez aurkeztea eta horregatik sartu ziren maila ertaineko tituluak; hori egia da txostenak baietsitakoarekin bat etorriz, baina harrigarria da, zereginak betetze aldera, tituluak egokiak ziren definitzeko azterketarik ez egitea. Gainera, ohartarazi behar da deialdiak txostenean deskribatutako formulazioa ez duela, lanpostua lortzeko baldintzei dagokienez, titulu guztiekin berdin parte hartzeko aukera ematen baitzen. Hala, titulu ertaina zuten pertsonen partaidetza ez zen goi-mailako tituludunik ez aurkeztearen mende uzten.

Lanpostua lortzeko baldintzen aldean, merezimenduen baremoak tituluak banan-banan bereizten ditu eta 10 puntu ematen dizkie aztertutako bi goi-mailako horiei; 5 puntu, berriz, maila ertainean nekazaritzaren arloan dauden bost tituluetatik bakarrari, nahiz eta atal honen konfigurazio zehatzaren arrazoia ez azaldu.

Lanposturako baldintzen artean bestelako titulu akademikoak baztertzeari dagokionez, eskuratu dugun dokumentazioarekin erabakia funtsatzeko arrazoiak ezin daitezke ezagutu. Halaber, ez da jakina beste hautabide batzuk aztertu edo planteatu ziren nekazaritzaren arloan bakarrik lanbide heziketako bi titulu egokitzat jotzeko.

Zehatz-mehatz esanda, kexagileak aurkeztutako titulua (Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ustiategiak espezialitatean), dirudienez, ez zen aldeaz aurretik aztertu, udalaren erantzun-txostenak ematen duen argudio bakarra, berraztertze errekurtsoarekin batera, pertsonak aurkeztutako dokumentutik ateratako lanbide-zereginetan oinarritzen baita.

Nolanahi ere, alegatutako titulu eta lanpostuko funtzioen arteko bateragarritasuna baloratzean, dokumentuaren babesean, lanbide-zereginak bestelakoak direla besterik ez du esaten.

Dena den, ezin daiteke ahaztu ondoren egindako analisisia dela. Ordurako, hautespen-prozesua dagoeneko amaituta zegoen. Gainera, ez ditu funts modura erabiltzen alegatutako tituluaren ezaugarriak eta ikasketa-plana ala berezkoak dituen lanbide-gaitasunak edo -trebakuntzak, Espainiako Nekazaritza Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialeko Kontseilu Nagusiak egindako dokumentua baizik eta dokumentu horren helburua ez da prozesu honetan alegatutako titulu zehatzaren berariazko ezaugarriak definitzea.

Horrez gain, txostenak ez du aipatzen, hain zuzen ere deialdia izapidetu zen unean, kalifikazio-epaimahaiak kexagileak alegatutako titulua onartu zuela, bere edukia egiaztatu eta lanpostuaren xede diren arloetan antzeko prestakuntza ematen duela ondorioztatu ondoren. Izan ere, hori izan zen oinarria hautespen-prozesuan onesteko. Gure ustez, aurrekari garrantzitsu horrek eskatzen zuen kontrako iritzia izapidetutakoa baino analisi- eta arrazoitze-zeregin esanguratsuagoan oinarritzeko.

Azkenik, kexagilearen berraztertze errekurtsoak hainbat gogoeta zituen lanpostuan garatu beharreko funtzioen izaerari eta arloan jurisprudenziak emandako tratamenduari buruz. Horietaz baliatu zen bere iritzia oinarritzeko, bere ustez lanpostua lortzeko oinarrietako tituluetara ezin baitzen mugatu.

Erakunde honi bidalitako txostenak gogoeta horiek ez ditu balioetsi, nahiz eta gure eskaerak errekurtsoari eman behar zitzaion tratamendu arrazoituari buruzko informazioa eskatu. Hortaz, ez da jakina azkenean errekurtsoaren ebazpenean kontuan hartu diren.

3. Amaitzeko, hautespen-prozesuaren emaitzei buruzko behin betiko zerrenda onetsi ostean, Anoetako Udalak kexagilea gertatzez ez onartzea erabaki zuen eta atal honek gai horri eutsiko dio.

Erakunde honek administrazio horri bidali zion bigarren idazkian azaldutakoaren arabera, eskura zuen administrazio-espeditarearen kopian kalifikazio-epaimahaiak egindako egintzak deuseztatzeko prozedura ezin zitekeen antzeman, bakarrik hala xedatzen zuten alkatetzaren dekretuak⁴ baitzeuden, hortaz, ezinezkoa zen jakitea beste izapide osagarri batzuk gauzatu ziren.

Erantzunaren txostenak ere ez du informazio hori, beraz, ondoriozta daiteke jarduerak dekretuak egitetik at ez zuela bestelako izapiderik izan.

Zehazki, honako hauek dira:

- Anoetako alkatearen 2019ko maiatzaren 27ko dekretua, hautespen-prozesuaren emaitzei buruzko behin betiko zerrenda onesten duena.
- Anoetako alkatearen 2019ko ekainaren 25eko dekretua, landa eta natur inguruneke teknikariaren izendapena onesten duena.

Bi egintza horiek deialdiaren oinarrietako 10. idatz-zatira bidaltzen dute eta dokumentazioa aurkezteari buruzkoa da. Horren arabera, gaintitu duten pertsonak, izendatu baino lehen, beste dokumentu batzuen artean, deialdian parte hartzeko titulu akademikoaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko dute eta, gainera, epearen barruan egiten ez badute edo eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte, baliorik gabe geldituko dira, bai hautespena, baita horretara daramaten jarduerak ere. Hala, hautatutako hurrengo pertsonari izendatuko zaio.

Bestalde, bere erabakia 6/1989 Legeko⁵ 32.2 artikuluan oinarritzen du. Horren babesean, *“Aukeraketarako epaimahaien edo teknika-organuen erabakiak izendaketa dagokion organuarentzat baztertze-indarrekoak izango dira, honek, Arduralaritza Auzipidetarako legean oharmandakoaren arauera, ikuskatu ahal izatearen kaltetan gabe.”*

Eta, azkenik, 39/2015 Legeak 106. artikuluan administrazio publikoei emandako ahalmena azaltzen dute. Horri eutsiz, erabateko administrazio-egintza deusezak ofizioz ikuska ditzakete, arau bereko 47.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Erakunde honen ustez ezin daiteke alde batera utzi alkatetzak formalki hautespen-prozesuan pertsona onartu eta baztertuen zerrenda onetsi zuela eta lehenengo artean kexagilea zegoela. Hala, prozesuan parte hartzen utzi zitzaion eta lehenengo postuan amaitu zuen, kalifikazio-epaimahaiak onartutako behin betiko emaitzetan agertzen den bezala. Horrenbestez, deialdiaren oinarriekin bat, izendapen-proposamena bere alde egin zen.

Erantzunaren txostenak adierazitakoaren arabera, onespren-egintza izapide-egintza da eta ez behin betikoa. Noski, erakunde honek izapide izatearen iritzia partekatzen du, baiesteko denean. Dena den, egiaztapen horrekin ezin daiteke ulertu edozein bitartekoren bitartez alda daitekeen jarduera denik.

Arartekoaren iritziak, hautespen-prozesuan onartzea izapide-egintza izan arren, eskubideak aitortzeko egiazko egintza da ere bai, hortaz, erabakia hartu ostean eta berezkoak dituen ondoreak gertatutakoan, jarduera xume batekin ezin daiteke bere zentzua alda. Prozedura egokia gauzatu ezinbestekoa da.

Illo horri jarraiki, oinarrietan aurrez ikusitako tituluaren fotokopia ez aurkeztea ez litzateke nahikoa izango hartutako erabakia justifikatzeko. Ezin daiteke uka eskakizun hori deialdiaren oinarrietan agertzen dela, baina, halaber, egia da kalifikazio-epaimahaiak eta alkatetzak onartutako pertsonen zerrenda onetsi zutenean, oinarrietan aurrez ikusitakoez kanpo beste titulu batzuk zituzten pertsonak onartzea erabaki zutela.

Uztailaren 6ko 6/1989 LEGEA, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.



Gure iritziz, oinarrien 10. idatz-zatian lanposturako alegatutako tituluaren fotokopia aurkezteko eskatzean, hautespen-prozesua gainditu duen pertsonak egiaz alegatutako titulua duela egiaztatu nahi da, onartzeko oinarri bezala erabiltzen baita. Horregatik, onartze-jardueraren aurka egiteko ezin daiteke artikulu horretan babestu, izapide independentea izango balitz bezala, hau da, elkarrekikotasunik ez balego bezala. Nolanahi ere, dokumentazioa aurkeztearen izapideari hasierako izapidean zehaztutakoaren ildotik begiratu beharko litzaioke.

Hala, argi dago hautespen-prozesuan oinarrietan hasieran islatutakoez kanpo beste titulu batzuk zituzten pertsonak onartzea erabaki zela. Dena den, alkatetzaren dekretuetan adierazitako erabakiak, deialdiaren hitzez hitzekoa aipatu arren, modu desberdinean balioztatzearen ondorioz, egiaz hautespen-prozesuaren jarduna ikuskatzen du. Aurrekoaren harira, oinarrien kontraktzat jotzen ditu hasieran jakitun izanik eta berariaz hartu zen erabakiaren bidez oinarri berdinek bermatzen zituzten jarduerak.

Erakunde honek ez dio inola ere iradoki nahi Anoetako Udalari erreakzionatzeko ahalmenik ez duenik, bere ustez jarduerak lege-justifikaziorik ez dutenean. Are gehiago, zalantzarik gabe, beste edozein administrazio publikoren antzera, ezinbestez modu horretan jardun beharko luke gorabehera hori antzematen duen unetik. Baina, noski, egiteko araudiak aurrez ikusitako ikuskaritza-prozedurak erabili behar ditu eta bere jarduerak nahikoa arrazoitu ere bai.

Izan ere, alkatetzaren dekretuak, hasieran hautespen-prozesuan parte hartzea ahalbidetu zuten tituluak eskatutako baldintzak betetzen ez dituztela adierazten dutenak, dira horren adierazle. Horiei erreparatuz, batetik, kalifikazio-epaimahaiaren proposamenak lotesleak dira eta, ondorioz, bakarrik ikuskatu ondoren indargabe daitezke eta, bestetik, 39/2015 Legeko 106. artikuluekin bat, administrazio publikoei ordenamenduak egintza deusezak ofizios ikuskatzeko ahalmenak ematen dizkie eta prozeduraren arau zehatzak azaltzen dira.

Illo horretatik, gure iritziz, tokiko administrazio honek bere jarduna antolatu beharko luke: hautespen-prozesuan une hartara arte hartutako erabakiak argitu eta zer erabakitan ez zen funts zehatza betetzen. Gero, gaiari buruzko berariazko prozedura egituratu beharko luke, legezko eskakizunei jarraiki. Nolanahi ere, horretan jarduera guztiak agertuko lirateke, alde interesdun guztiek parte hartzeko eta ebazpen baten bidez amaitzeko. Azkenekoan formulatutako gai guztiak balioetsi eta erantzun arrazoitua eman beharko litzateke, errekurtsio egokiak jarri ahal izateko.

Erakunde honek eskuratu duen dokumentazioan ikus daitekeenaren arabera, ezin daiteke ahaztu partaide batek prozesuko emaitzen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioa aurkeztu zuela eta pertsona guztiek parte hartzeko baldintzak, bereziki titulazio akademikoaren baldintzei buruzkoak,



betetzen zituzten ikuskatzeko eskatzen zuela, beraz, udalak erreklamazioa izapidetu eta erantzun behar zuen nahitaez.

Baina, aldi berean, ezin daiteke alde batera utzi prozesuan onetsitako 10 pertsonetatik bakarrik 3k alegatu zutela lanbide heziketako titulua. Horrenbestez, gainerakoengan hartu beharreko erabakiak zuzenean eragiten zien.

Halaber, gogorarazi behar da kexagileak bere berraztertze errekurtsoan jaso zituen gogoetek eta argudioek onartze-egintzaren baliozkotasuna eta, bide batez, prozesuan bere partaidetza arrazoitu nahi zutela, beraz, errekurtsoan zeudenez, ahalik eta arinen ebazteaz gain, desiragarria litzateke, ukitutako gainerako pertsonak bezala, berariazko ikuskaritza-prozeduraren barruan behar bezala izapidetzea, orduan formulatu eta azken erabakia hartu baino lehen erantzun egokia izateko.

Bestalde, hautespen-prozesuan planteatutako egoeraz jabetu zenean, Anoetako Udalak, nahiz eta parte hartzea onetsi, lanbide-heziketako titulua ez zuten pertsonak baztertze aukerari buruzko txosten juridikoa eskatu zuen.

Alabaina, dokumentu hori 2019ko maiatzaren 24an egin zuen Donostiako abokatu batek eta hurrengo hau ondorioztatzen zuen: *“en la fase en la que actualmente se encuentra el proceso de selección, no se puede adoptar la decisión de exclusión, sin perjuicio de lo que en su día pueda decidir la Jurisdicción Contencioso-Administrativa si se impugnara el nombramiento ante la misma.”*

Arartekoaren ustez, txostena administrazio-espeditentean zegoenez, edukia ezeste aldera tokiko administrazioak argudioak emateko orduan ahalegin berezia egin beharko luke, bere iritziz zuzena ez bazen. Hala eta guztiz ere, ez zen ikusi espeditentean bertan modu horretan jardun zuenik.

Gogoeta bera jaso zen berariaz gure eskaera-idazkian, Udalaren erantzunak balioztapenik egin gabe. Are gehiago, funtsa duten argudioen bitartez bere ondorioa ez du zalantzan jartzen, ezta aurrekaria aurrez ikusten ere.

Amaitzeko, erakunde honen iritziz, tokiko administrazio horrek transkribatu duen Auzitegi Gorenaren epaia ebazpen honetan jasotako iritzia ez doa. Helburua akatsez edo legez kanpo gauzatutako jarduera mantendu behar den aztertzea da. Dena den, horrekin ezin daiteke ondoriozta administrazioak ikuskaritza-ahalmenak erabiltzeko prozedura egokia izapidetu behar ez duenik. Izan ere, kexaren atal honetan hori da eztabaida.



Ondorioak

Aurreko idatz-zatietan azaldutako gogoeten arabera kexa aztertu ostean, Arartekoak 3/1985 Legearen babesean formulatzen diren ondorioekin espedientean bere esku-hartzea amaitutzat jotzea erabaki du.

1. Espediente honetan informazio-eskaerak bidali ondoren, Anoetako Udalaren erantzunak gehiegi atzeratu dira eta errekerimendu bana bidali behar izan da. Era berean, aztergai izan dugun hautespen-prozesuaren esparruan kexagileak jarritako berraztertze errekurtsoaren ebazpena atzeratu da.

Prozedurak izapidetzen ari diren bitartean administrazioaren isiltasuna edo arrazoirik gabe atzeratzea proiektatzen ari diren pertsonen kokapen juridikoa nabarmenki kaltetzen duten jardunak dira eta defentsa-gabeziaren egoeratarira irits daiteke, beraz, Arartekoak nabarmendu behar du administrazio publikoek ordenamendu juridikoan zehaztutako jarduera-epeak bete behar dituztela.

2. Nahiz eta abiapuntutzat hartu deialdiko oinarrien kontra egin ez zenez, irmo eta adostu bihurtu zirela, dokumentazioa aztertu ondoren, hautespen prozesua definitzen duten elementu batzuek ez dute nahikoa justifikaziorik.

Administrazio publikoek giza baliabideak eta bitarteko materialak antolatzeko ahalmenak dituztela onartu arren, ordenamendu juridikoak xedatutakoari erantzun behar diote eta aldeztu aurretik objektibotasunez eta modu egokian justifikatuko dituzte euren erabakiak. Xede horrez, behar bezalako jarduerak gauzatuko dituzte eta prozeduraren administrazio-espedientean islatuko dira.

3. Kexagileari hautespen-prozesutik baztertze erabili ziren alkatetzaren dekretuak egiaz prozesuaren jarduna ikuskatzen dute. Nolanahi ere, horien aldean, helburu bererako behar bezalako prozedura izapidetu beharko litzateke.